

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

PARTAIDETZA ETA GIZARTE ETXEEN SAILA

2018ko abenduaren 28an Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako 2019ko diru-laguntzen deialdia eta oinarriak arautzen dituen erabakiaren laburpena. 2019an auzoetan dinamizazioa eta partaidetza soziala sustatzen laguntzen duten proiektuak garatzeko auzo elkarteei zuzenduriko laguntzen deialdi publikoko berariazko oinarriak

BDNS(Identif.): 438383

Gasteizko Udalak auzo-elkartek auzoetan egiten duten lanaren interes soziala aitortzen du, eta horregatik, haien eskura hainbat udal baliabide jartzen ditu, beren lanean laguntzeko eta garatzen dituzten programen eta jardueren ondorioz sortutako gastuak neurri batean estaltzeko.

Horretarako, udalak urtero diru-laguntzen programa onesten du eta udal lokalak edo udalak ordaindutako lokalak jartzen ditu tokiko elkarteen eskura. Baliabide horiek eskuratu ahal izateko, elkartek, jarduera-programaz gain, dagokion aurrekontuaren proposamena aurkeztu behar dute. Aldez aurretik ezarritako irizpideetan oinarrituta baloratuko da programa.

Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuak 2019. urtean Gasteizko Udalerriko auzo-elkarteei eta auzo-elkarteen federazioei laguntzeko diru-laguntzen eta udal beste baliabide batzuen deialdia arautzen dituzten oinarriak egin ditu. Lagundu daitezkeen kontzeptuak hauek dira:

- Laguntza ekonomikoak, jarduera-programa eta zerbitzuak garatzeko. Laguntza horien baitan bulegoko gastuak ere sartu ahal dira.
- Udal jabegoko lokalak eskura jartzea.

Araudia: 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzen Orokorra eta 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, lege horren arautegia onesten duena, baita Toki Korporazioen Zerbitzuen gaineko Araudiaren 23. artikulua eta hurrengoak eta Diru-laguntzei buruzko Udal Ordenantza ere (ALHAO, 5 zenbakia 2006ko urtarrilaren 13an argitaratua).

Xedea: Gasteizko Udalerriko auzo-elkarteei eta auzo-elkarteen federazioei beren lanean laguntzea, udalak langilerik edo baliabiderik ez duen arloetan, udal baliabideak eskura jarritz lokalak erabiltzeko baimena eman eta kudeaketa-gastuak ordainduz, baita 2019an garatzen dituzten programen edo jardueren parte bat ere, bakarka nahiz eragin-azuko beste elkarte edo kolektibo batzuekin batera garatzen dituztelarik ere, helburutzat izanik partaidetza dinamizatzea, gizarte-kohesioa suspertzea, gizalegezko jokabideak bultzatzea, integrazioa aldezte eta auzoko herritarren bizi-kalitatea hobetzea.

Xede elkarteak: auzo-elkarteak eta auzo-elkarteen federazioak.

Deialdirako aurrekontua

Deialdi honen barruan ematen diren diru-laguntzak Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuaren 2019ko aurrekontuko 18 22 9242 4 8954 partidako aurrekontu-kredituaren kontura izango dira aurreikusitako gehieneko zenbatekoa 180.000,00 eurokoa da.

Eskabidea aurkezten denean, aurkeztu beharreko agiriak hauek izango dira:

Diru-laguntzaren eskabidea

I. eranskina. Auzo-elkartearen komunikazio- eta partaidetza-bideak.

II. edo III. eranskina: 2019ko jardueren proiektua.

IV. eranskina. Gasteizko auzoen zerrenda.

Oinarri hauetan ageri den eredia erabili beharko da eskabidea egiteko udalaren webgunean eskura daiteke vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak.

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia Gasteizko Udalaren webgunean egongo da eskuragarri www.vitoria-gasteiz.org baita Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetan ere, ordutegi ofizialaren barruan.

Diru-laguntzak justifikatzea

Justifikatzeko epea. Erakunde onuradunek egindako gastua justifikatzen duen kontua aurkeztu beharko dute 2020ko urtarrilaren 31 baino lehen.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 30a

Partaidetza eta Gizarte Etxeen Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
MARILÓ MOVILLA RIVAS